

« Bestetan bortizkeria sexista eta sexualen kontrako borroka »

Protokoloa

Herriko besta eta manifestazioak Euskal Herriko bizimoduaren erritmo dira eta gure nortasunaren erakusle. Bestak partekatze momentua izaten segitu behar du, bakoitzarentzat beldurrik gabeko josteta eta trukaketa unea.

Eraso sexista edota sexuala ez da gaizki ulertzea edo trakeskeria, ekintza bortitza da, nahitakoa, eta gaitzesgarria.

Irain sexista da pertsona bati konotazio sexista edo sexuala duen solas edo jarrera inposatzea, bere duintasunari eraso eginez eta egoera jasanezinean sartuz.

Eraso sexuala da biktimaren onarpen argi eta eta garbia ukan gabe egin izaera sexualeko ekintza, hala nola hunkitzeak.

Protokolo horren nahia da antolatzaileei tresna metodologiko baten emaitza herriko besta eta manifestazioetan iragan daitezken eraso sexista eta sexualen saihesteko eta kontra egiteko eta bakoitzari askatasun osoz bestetaz baliatzeko parada emaitza.

I. Herriko besta eta manifestazioen antolaketa

Communauté d'Agglomération Pays Basque

15 av. Foch, CS 88 507 64 185 Bayonne Cedex
t. 05 59 44 72 72 - communication@communaute-paysbasque.fr
communaute-paysbasque.fr

A) Prestaketa bilkurak

Antolaketa bilkuretako gai zerrendetan sartzeak, bortizkeria sexista eta sexualen kontrako borroka manifestazioaren dispositiboan eta egitarauan sartzea ahalbidetzen dute eta prebentzioaren egituratzen laguntzen dute baita biktima eta erasotzaileetaz arduratzen ere.

Antolaketa osoaren aurreikusteko, antolatzaileek, manifestazioko eragile oro zerrendatu eta gomiatu beharko dute (komertzio, elkarte, segurtasun eragile...) prestaketa bilkuretara eta elkarlanean eraiki manifestazioari egokitua zaion dispositiboa.

B) Bestaren dispositiboaz eragileak formatu eta informatu

Antolatzaileez gain, herriko manifestaziotan parte hartzen duten tokiko eragile anitzek, hala nola ostalerrak, txosnak dituzten elkarteak, komertsantak... Plantan jarri dispositiboaz informatzeak eta formatzeak eta biktimen segurtasunak bestak sanotuko ditu.

C) Dispositiboaz komunikatu

Manifestazioa aitzin, antolatzaileek bortizkeria sexual eta sexisten kontrako dispositiboa aurkezten duen komunikazio kanpaina antolatuko dute, parte hartzaileak erasoan seinaltatzeko baliadeetaz jakinean izan daitezen eta babestuak izan daitezen.

II. **Besta garaian**

Besta garaian, bortizkeria sexual eta sexisten kontrako dispositiboak 4 ardatz kondutan hartu behar ditu: informazioa, jendea, biktimei harrera eta erasotzaileen identifikazioa.

A) Informazioa

Publiko zabalaren sensibiltzatzeko, ekintza eta eraso sexista definitzen dituen, arriskatu zigorrak aukezten dituen, dispositiboaren jakinarazpena agertarazten duen eta arduratsua izaitera gomitatzen duen eta zailtasunetan den pertsonaren laguntzea eskatzen duen afitxak gune estrategikoetan jartzea (sartzean, barra, txosnak...) gomendatzen da. Besta hastapenean eta garaian, mezuak pasarazteak ere dinamikan parte harzten du.

B) Zaintza

Communauté d'Agglomération Pays Basque

15 av. Foch, CS 88 507 64 185 Bayonne Cedex

t. 05 59 44 72 72 - communication@communaute-paysbasque.fr

communaute-paysbasque.fr

Antolatzaileek kolore batez identifikagarri diren pertsona erreleboak identifikatzen dituzte, besten segurtasunaz arduratuko direnak, haien presentziari esker lasaigarriak liratekenak, egoerak aitzinikusiko dituztenak, biktimak beren gain hartuko dituztenak orientatzeko gisan.

C) Biktimen harrera gunea

Besta garaian, biktimen harrera gunea bat atxikitzea gomendatzen da, biktimak babesean emaitako gisan, lasaitzeko gisan, erasotzaileen identifikatzen lagunduko luketen lekukotasunak biltzeko gisan.

D) Biktimen lekukotasunaren biltzea

Harrera gunean, lekukotasunak biltzeko xoko bat atxiki, entzunak izaiteko gisan eta prozedura judiziala eta salaketa prozedura jakinarazteko gisan.

Harremana:

➤ Elkartek:

- Erran eta bizi elkarte (Donapaleu, Amikuze)
- Association Citoyenneté Justice Pays Basque Elkarte (ACJPB): 05 59 59 45 93
- Centre d'Information sur les Droits des Femmes et des Familles des Pyrénées Atlantiques (CIDFF 64) : 0637957822
- Association Femin'hitza

➤ Zerbitzuak:

- Jandarmeria/Polizia
- Errepublikako prokuradorea, Légion Tchèque etorbidea, 17, 64100 Baiona
- Abokatuen permanentzia: 06 22 05 02 35
- Unité de Victimologie Centre Hospitalier Côte Basque : 0533788137

Communauté d'Agglomération Pays Basque

15 av. Foch, CS 88 507 64 185 Bayonne Cedex
t. 05 59 44 72 72 - communication@communaute-paysbasque.fr
communaute-paysbasque.fr